



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Urtarrilak 28: Datu Babesaren Europako Eguna

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAK OSPAKIZUNAREKIN BAT EGIN DU EUSKAL GIZARTEAK ORAINDIK ARLO HONETAKO ESKUBIDEAK EZ DITUELA EZAGUTZEN JAKINARAZTEN DUEN AZTERLAN BATEKIN

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste dut asko aurreratu den arren, gizarteak oraindik bide luzea egin behar duela arlo honetan dituen eskubideak ezagutu eta erabiltzeko, eta bide horretan Bulegoaren laguntza izango du.

Datorren astelehenean, urtarrilaren 28an, Datu Babesaren Europako Eguna da. Egun hau Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako datu babesaren arloko agintaritza guztiek sustatu dute.

Datu Babesaren Europako Egunaren helburua da Europako herritarren artean ezagutaraztea hain ezezaguna den baina haien bizitzako alor guztietan hain nabaria den gai honi buruzko eskubideak eta erantzukizunak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB), ospakizun honetaz baliatuz, euskal gizarteak datu babesaren arloan dauzkan usteei buruzko **azterlan baten ondorioak** aurkeztu ditu.

Duela gutxi arte 2003ko Eurobarometroaren txostenaren emaitzak baino ez zeuden, eta txosten horren arabera, Europan datu babesaren arloan dagoen kontzientziazio maila ez da altua, herritarren erdiek ez baitakite datuen babesarekin lotutako eskubideak daudenik, edo ez dira horretaz konturatu ere egin. Horregatik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) euskal herritarrek gai honetaz zein iritzi duten jakiteko azterlan bat enkargatu du.

Azterketaren helburu nagusia izan da herritarrek gai honi buruz zenbat dakiten neurtzea, eta **ondorio nagusiak** agerian utzi du, datu babesaren kultura poliki-poliki gizarteratzen ari den arren, oraindik pertsonak babesten dituzten eskubideen gaineko **ezjakintasuna handia dela**.

Herritarrak **ez daude gaiarekin sentsibilizatuta** eta ez dute haien datuak babesteko premiarik ikusten, eta ikustekotan, Interneten erabileraren ondorioz izan dezaketen kalte ekonomiko edo finantzarioak jasotzeko arriskuagatik da.

Datu pertsonalen erabilera dela eta agertzen duten konfiantza mailari buruz, aipatzekoa da gizarteak baduela konfiantza administrazio publikoaren jarduteko eran, ez, ordea, enpresa pribatuenean.



Datuen babesaren eta euskal herritarren gaineko Azterlanaren emaitzak

Azterlanaren helburu nagusiak

- Datu babesarekin lotutako problematikaren inguruan gizarteak duen ikuspuntuaren berri izatea.
- Adin tartearen arabera dauden diskurtso desberdinak bereiztea (8-21, 22-30, 31-45, eta 45etik gorakoak), arreta berezia jarritzaz gazteen iritzietan.
- Galde sorta kuantitatibo bat diseinatzea azterlan honi jarraipena emateko eta ondorioen garapena neurtu ahal izateko etorkizunean, bai eta aldi-aldi iritzi-egoeraren eta herritarren premien jarraipena egin ahal izateko ere.
- DBEBren kontrol eta zerbitzu eginkizunak gidatzen laguntzeko tresna bat izatea, Euskadin bertan landutako informazioarekin.

Azterlanaren edukia

Zer uste dute herritarrek datuen babesaren gainean?

- Hasiera batean herritarrek uste dute datuen babesak ez daukala haiekin zerikusirik (ez dute arazo moduan ikusten), baina haren agerpenak bistaratzeko babesik gabe daudela iruditzen zaie.
- Datu pertsonalen erabilerarekin zerikusia duten eragozpenak desberdinak dira herritarren adinaren arabera. Nagusienek telemarketinarekin lotutako teknika oldarkorrekin lotzen dute arazoa; gazteenek, ordea, Internetekin lotzen dute (batez ere spam edo posta baztergarriaren bidez egiten den inbasioarekin).
- Herritarrei beldurrik handiena ematen diena da iruzurrak edo diru-lapurretak egon daitezkeela, bai eta merkataritza helburua duten datu tratamenduen ugaritzeak ere.
- Pertsonak ez daukate legeen edukiaren berri eta ez dakite administrazioek eta/edo enpresa pribatuek nola erabil ditzaketen haien datu pertsonalak.
- Gizartean ez da hedatu merkataritza helburuarekin erabil daitezkeen datu pertsonalak babestu behar diren gaineko sentsibilizazioa.
- Internet arriskuz beteriko mundua balitz bezala ikusten da, kontrolarik kanpo ikusten da, eta bertan erabiltzaile bakoitzak berak dakienaren arabera hartzen ditu babes neurriak.

Datuen tratamendua administrazioan eta enpreetan

- Konfiantza erabat kontrako da datuen erabilera administrazioak egiten duenean eta enpresa pribatuak egiten duenean. Azterlan honen arabera, herritarrek uste dute administrazioek erabiltzen dituzten datuak oso ondo babestuta daudela, aldiz, ez dute konfiantza handirik agertzen enpresek egiten duten erabileraren gainean.



Herritarren dituzten eskubideak

- Pertsonak ez dakite informazioa jasotzeko eskubidea dutenik. Ez dakit administrazioan nahiz enpresetan galde dezaketela ea haiei buruzko zeintzuk datu pertsonal dauzkaten eta ez dakite datu horiek zuzentzeko edo ezerezteko eska dezaketela, baldin eta datuak ez badira zuzenak edo beharrezkoak .
- Pertsonak jakin nahi dute zeintzuk eskubide dauzkaten eta zeintzuk diren administrazioek eta enpresek dituzten betebeharrak.

Ea herritarrek badakiten Datuak Babesteko Euskal Bulegoa badagoela eta ea dakiten bulegoak zer egiten duen.

- Ez dakite datu babesaren arloan kontrol agintaritarik dagoenik (agentziak) eta uste dute datuen babesa kontsumoarekin lotutako kontu bat dela.
- Gaiari buruzko ezjakintasuna badago ere, haien premiei buruzko eskaerak agertu dituzte eta eskaerari erantzun egin behar zaio. Hona hemen:
 - Informazioa eskatzen da arlo hauetan: datu pertsonalen babesaren gainean, administrazioen eta enpresen betebeharren gainean eta herritarren eskubideen gainean.
 - Egokiak ez diren egoerentarako protokoloak ezartzeko eta protokolo horien berri emateko.
 - Egokiak ez diren jarduerak gertatzen direnerako babesa, ikuskaritza eta, hala badagokio, isunak.

DBEBren gomendioak.

Azterlan honen bidez eskuratutako ondorioak ikusita, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak badaki herritarrek jasotzen dutena baino informazio gehiago eskatzen dutela. Hori dela eta, Bulegoak konpromisoa hartzen du datuen babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko egiten duen ahalegina handitzeko, bai komunikabideen bitartez bai erakunde publikoekin lankidetzan arituz.

Zentzu horretan, gogora ekarri behar da zer dela eta sortu zen Datuak Babesteko Euskal Bulegoa 2004an eta zeintzuk diren Bulegoak EAEn dauzkan eginkizunak.



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Aurrerapen teknologiko berriek informazioa azkar eta modu masiboan manipulatzea ahalbideratzen dute jadanik, eta hala ez bada, epe laburreko kontua izango da. Beraz, pertsonak eraso horretatik babesteko asmoarekin sortu zen datuak babesteko oinarritzko eskubidea. Eta horrexegatik dago EAEn, 2004. urteaz geroztik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

DBEB administrazio askea da eta honako eginkizunak dauzka:

- Administrazio publikoek datu pertsonalak erabiltzen dituztenean legea betetzen dutela zaintzea. Ondorio horretarako, ikuskapenak egiten ditu, espedienteak bideratzen ditu eta arau-haustek aitortzen ditu.
- Administrazio horiek herritarren eskubideak errespetatzen dituztela zaintzea, herritarrek eskubideez balia daitezen.
- Datuak babestearen arloan herritarrek eta erakundeek egiten dizkioten mota guztietako kontsultei eta txosten eskeei erantzutea.
- Datuak Babesteko Erregistro batean jasotzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakundeek egiten dituzten datu pertsonalen tratamendu guztiak (datuen tratamendu mota guztiak, ez datuak).
- Administrazio publikoetan lan egiten dutenen artean jardunbide egokiak sustatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 25a

www.avpd.es